

BIDAIAREN EZAUGARRIAK ORO HAR

- *Zeelanda Berrira bidaiatzea, taldean, Nelsonen dauden bitartean familiarekiko esperientziaren, esperientzia akademikoaren eta esperientzia kulturalaren arduradun izango den antolatzaile natibo batekin.*
- *Zeelanda Berriko kulturaren bi alderdiak bizitzea, “maori” kultura eta kultura europarra, bidaiaren koordinatzaileak ezagutzen dituen familia hautatuetan bizitzen.*

Eskolak

Taldeak eskolak jasoko ditu 3 astez, astelehenetik ostiralera, taldearen koordinatzailearekin eta goimailako kualifikazioa eta irakaskuntzan eskarmentu handia duten bertako bi irakaslerekin.

Familiarekin igarotako denbora

Familiarekin igarotako denbora funtsezkoa izango da ingelesa hobetzeko eta perfektionatzeko; beraz, espero dugu ahalik eta denbora gehien ematea familiekin, batez ere eskolen ostean eta asteburuetan.

Taldearen laguntzaileak bidaiari

Taldea beti egongo da lagunduta bidaiari zehar.

EGONALDIA FAMILIA BATEAN

Bidaiaren antolatzaileak pertsonalki ezagutzen dituen Nelsoneko familiak dira, beren etxeetako atak bisitari berriei irekitzeko prest dauden familiak. Familia horiek diru-kopuru bat jasoko dute asteko (diru-kopuru hori bidaiaren prezio osoan dago sartuta). Gure helburua da ikasleak hiriko alde desberdinetan bizi diren familietan kokatzea, eskolen ostean eta asteburuan ikasleek elkar ikustea saihesteko. Ikasle bat egongo da familia bakoitzeko. Familiak logela bat eta eguneko hiru otordu emango dizkio ikasleari, nahiz eta gogoratu behar dugun kultura anglosaxoian gosaria eta afaria diren otordu nagusiak. Hortaz, bazkaria oso arina izango da, familiak duen ohiturari jarraiki.

Zeelanda Berriko familiarekiko aurretiazko harremana

Behin izen-ematea berretsita dagoenean, familia hautatuko da, eta postal helbide elektronikoak trukatu dira, Zeelanda Berrira iritsi aurretik elkar ezagutu ahal izateko.

IKASKETA-PROGRAMA NELSONEN

Eskolak astelehenetik ostiralera emango dira, 9.00etatik 12.00etara. 10.30etan hamaiketakorako atsedendia emango da. Programa Doug eta Mary Hillek antolatuko dute; beraien Asiako herrialdeetako ikasleei ematen dizkiete eskolak normalean. Antolatzailea ere egongo da eskolatan, ikasleak eskolatan elkarrekin daudenean ingelesez hitz egiten dutela bermatzeko.

Astean bitan, txangoak antolatuko dituzte, eguerdiko 13.00etatik 15.00etara. Ikasleek Nelson inguruko leku desberdinak bisitatuko dituzte, eta bertako jendea ezagutzeko aukera izango dute. Antolatzailea taldearekin egongo da irteera horietan. Ikasleek informazioa bildu beharko dute, galderak egingo dituzte, eta behatze-jarduerak egingo dituzte, arratsaldeko irteera horiek egiten dituztenean.

TALDEAREKIKO HARREMANA NELSONEN

Taldea edozein unetan jarri daiteke Rogerrekin harremanetan telefonoz, astelehenetik ostiralera, gaueko 22.00etara arte. Probintzia barruko deiak doan dira han, beraz etxeko telefonoa erabili ahal izango dute. Ikasleen gurasoak e-mailez jarri daitezke harremanetan ikaslearekin berarekin edo antolatzailearekin:

rjwesney59@yahoo.com

Ikasle bakoitzari egokitu zaion familiaren nahiz antolatzailearen harremanetarako zenbakia emango zaie, nazioarteko kodearekin. Ikasleak larrialdi kasuetan bakarrik jarri daitezke harremanetan antolatzailearekin.

Informazio gehiago:

The Tolkien Centre - C/ Ondarreta 7, bajo – ANDOAIN – 943 30 08 39 - www.andoainenglish.com